

**JANIS JOPLIN, SUDUR GORRIAK ETA
ARRAUTZA FRIJITUAK**

Lurdes Ondaro Mallea

Munitibar

Neguaeren ezaugarri nabariena ez da elurra. Elurra jantzia, kanpoko baina ez da, begiratu batean ikusten duguna. Arrautzan zuringoa da gehien ikusten dena, baina izatez zorroa baina ez da, garrantzia gorringoak du. Neguaeren gorringoa sudur gorriak dira. Ezpainak zartatzen ditu hotzak eta neguak, bai, baina ezpain zartatu zuri-ubelxkak ez dira neguaeren ikur. Batek jakin zergatik. Agian, pintoreen kasuan bezala, erdian dagoena sudurra delako eta ez ezpainak. Uste baina garrantzia handiagoa dute kokapenak, perspektibak eta efektu optikoez eguneroko bizitzan.

Hala bada, neguan sudur gorrien armada osoak eratzen dira kaleetan. Urtearen eta neguko tenperaturaren arabera da partaide kopurua. Esan beharra dago edozein lurralde konkistatzeko gai dela armada hau, bonba nuklearrak txiki geratzen baitira sudur gorrien doministiku indartsu, potentziadun eta muki jario likatsu libreaezin horien ondoan.

Partaide horietako bat dugu Argia. Amak goizeko argia baino eder eta finagoa dela esan ohi dio, baina berak ez dio sinesten. 22 urteko neska da, Donostian bizi da eta zuzenbide karrera amaitu berri du. Unibertsitatetik bota duten arren, postu finkoa du sudur gorrien armadan. Ez ditu gogoko diskotekak, atzamar oskolak ebaki berritan geratzen den sentsazioa, boxeoa eta eskolako txirrina. Gogoko ditu artilezko jertseak (neguan sudurra babesteko artilezko zerbait egin beharko luketela uste du), koadernoak idatzita daudenean eskua gainetik pasatzea, udako gauetako txirtxirren hotsa eta arrautza frijituak.

–Kafe hutsa, mesedez.– eskatu du eguneroko taberna-dastategira sartu eta bat (kafea oso gustuko du). Erdi hutsik dago lokala: goiza izan arren baso bete ur eta olibak parean dituen atsoa alde batetik (ez du ezer irakurtzeko eta bakarrik dago, beraz, pentsatzekoa da hizketa nahiko duela eta Argiak gaur ez du inoren bakardadea leuntzeko gogorik; beste egun bat izan balitz bere ondora joan eta eguraldiari buruz edo Gibraltarren inguruko maniobrei buruz arituko zitzaion, baina ez da beste egun bat). Eta lanera joan aurretik, bankuren batera seguru asko, EL MUNDO irakurtzen ari den gizon trajeatua bestetik (alkandoraren botoiak zarta egin beharrean ditu, tentetzean ziur baten bat apurtuko zaio). Bi subjektuak lokalaren alde banatan daudela jakinda eta zabalera guztiz 10 metro ingurukoa dela ikusita, kalkulu arin bat egin eta bien eragin eremutik urrunen dagoen eserle-

kuan eseri da. Mahaitxo honek ez du sofarik –horma kontran daudenek bai– eta aulkiak ez dira erosoegiak, baina ezin da arriskatu.

Gizon trajeatuaren atzean kafetegia kaletik babesten duen bentana handi bat dago. Haizea dabil, tifoia kasik. Holako egunez aterkia ateraz gero etxera bizirik ez heltzeko, hots, etxera ez heltzeko probabilitate handia dagoela konturatu da. Umetan beti ahazten zuen aterkia klaseko ontzian, irakasle aspergarri guzti haien klaaaaaasseeeee luuuuuuzzeeeaaak bukatu eta bat, gelako azken lerroan galdutako oxigenoa berreskuratzeko aterki ontziaren ondotik arineketan irtetea. Oxigeno gutxi eta karbono dioxido gehiegi omen dago atmosferan (horregatik Argiaren oxigeno eza klaseko azken lerroan), gutxitu egin behar omen dira gas isurketak, baina nehork ez dio kasu egiten Kyotoko protokoloari. Nehork ez du ezer egiten oxigenoa gehitzeko klaseko azken lerroan. *Nehork* zein hitz polita...

–Hementxe zure kafea, euro t’erdi da– esan dio tabernariak bere parean ipinita.

–Hemen zure kafea– berriz, eskua begien paretik pasatzen diolarik, itsututa baitago bentanari begira bezeroa.

–Eh? Euro t’erdi, bai... Eutsi eta eskerrik asko.

Irribarreka aldendu da tabernaria, neska gaztea buruaren koherentzia eta inkoherentzietan murgilduta utzita, leihotik zeharreko haizeak “nehork”etik zer duen pentsatuz, nerbio eta neuronek hitzen eta ideien arteko erlazioak egiteko

behar duten denbora tarte nanoetan, denbora deitzea zilegi bada, pentsatuz.

Zer da denbora izan ere? Subjektiboa da oso denboraren neurria. Egia da denbora pasatu pasatzen dela, hor daude eguzkia eta ilargia (argizagia esango luke nehor askok) eguna eta gaua igaro direla adierazteko, eman duela lurrak beste bira bat, eguzkiarekin dantzan. Baina dantza horretan pauso batzuk geldoago ematen dira, dantza ez dela amaituko dirudi, eta beste batzuetan ikusi ere ez dira egiten hanken mugimenduak, mugitu direnik ere ez.

Gaur badirudi orkestrak pieza dramatiko malenkoniatsuren bat aukeratu duela, eguna astiro baitoa oso. Kanpoko haize freskoak ere ez du biziartzten.

Amaitu du kafea, eta badoa kalera. Atetik irteetan bizikletadun batek ia bota du lurrera. Ez da gertatu denaz konturatu hamarren bat segundo pasatu arte. “Barkatu esan du? Bai ezta? Edo ez du esan?”. Ez daki. Ez dio garrantzia gehiegirik eman aferari eta aurrera segitu du bere bidean.

Belarriekin ikustea, momentua dastatzea otu zaio, azkenaldian ikusitako pelikula bateko protagonistak kale erdian begiak itxita eta besoak zabalik egin zuen antzera. Bera diskretuagoa izango da. Banku batean eseri eta begiak itxi ditu. Hasieran urrunak ziren hotsak hurbildu eta sailkatu ditu: kotxe motorren burrunba, jendea hizketan, zarataka, klaxon hotsak, denda bateko atea zabaltzean zintzilikario metalezkoak egindako hotsa, oihuak,

kotxe gehiago, zarata, zarata, zarata, piiiii. Kolpean begiak zabaldu eta bolumena jaitsi dela dirudi. Ez du, dena dela, entzungo zituela uste zuen hots erromantiko horien antz gehiegirik. Orain, begiekin entzun nahi du, lehen hartutako desengainua arintzeko edo. Kontzentratu, belarrietako nerbioei barrikadak ipini eta ingurura begiratu du, hontzak buruari buelta osoa ematean bezala. Kotxeak bidean, kalean jendea hizketan inon gelditu gabe, bakoitza bere bidean finko, mobilarekin batzuk, musika entzunez besteak... Aurrez programaturiko robotak balira bezala. Bera ikusezina da. Inor ez da bankuan eserita dagoen neska dagoenik ere konturatzen.

Horietako bakoitza hari bat balitz, korapilatuko lirateke hariak bata bestearekin gero bakoitzak bere bidean jarraitzeko. Korapilo garbiak batzuk, askatzean arrastorik uzten ez dutenak, eta beste batzuk, azkenean askatzea lortu ondoren ere, han izanak diren marka uzten duten korapiloak. Baina gehienak korapilo garbiak.

Eta itxi ditu begiak eta ikusi du belarriekin eta blokeatu ditu belarriak, entzun du begiekin. Eta berriz, eta berriz.

“Zer egiten dut nik hemen?”.

Hain hotza, hutsa al da Argia? Hutsa, hutsa, hutsa... Hutsaren balioa goratu zuen Oteizak. Hutsa dago unibertsoa eta gero. Gure baitan amaitzen ote da unibertsoa? Hain da hutsa...

Unibertsoa bere baitan amaituko balitz ahoa zabaldu, bere elastikotasun naturalarekin makurtu

eta kamiseta bati buelta ematen zaion bezala bere buruarekin berdin egingo luke eta hutsean sartu, ahotik. Baina orduan jada ez litzateke hutsa. Hegoak ebakita txoria txori ez den legez.

Hala ere, izan behar da, izan, buru gutxikoa eta zoroa, horrelakorik pentsatzeko, Argia. Ez al zenuen ikasi zuk, aterkia klasean ahaztea eragiten zizuten irakasle gorrotagarri haiekin, presioak egonkortzeko joera duela, eta presio gutxiko lekuetara doala beti presio handia? Ba, orduan, ahoa zabaldu eta hutsera sartzean, inguru-ko mundua (presio handiagoa du hutsak baino) ere barrura joango litzateke. Eta orduan hutsa kanpoan, lehengo munduan geratuko litzateke, eta mundua barruan. Eta Argia barruan. Umeak atzamarra luzatzean bezala ilargia ukitu nahian, ez dela heltzen ikusi eta saltoka hasita ere heltzen ez dela ikustean, ez ilargira, ez eguzkira, ez elefante itxurako lainoen artera, ez zero urdinera...

Haizeak ekarritako egunkari orri batek aurpegi-
gian jo duenean etorri da elefante artetik zorura. Berandu da jadanik eta mugitu beharra dauka. Altxatu da bankutik eta kalean barrena pauso seguruz ibiltzen hasi da, baina nora? Erraza da ibiltzen nora joan daukazunean. Gelditu egin da. Bestela ere bai, mekanika hutsa, ibiltzea hanka bat altxatu, aurreratu eta lurrean uztea da atzeko hanka altxatzearekin batera, goxo-goxo, zakarkeriarik gabe. Aurreko hanka altxatu du teoria praktikan jarritz eta berriz lurrera itzultzean putzu batean sartu du oso-osorik, "plast". Zapata berriak busti zaizkio eta hanka mela-mela eginda du.

Ura sentitu du hanketan gora, odolaren lekua hartu balu bezala, ura doa zainetan gora eta hankak sentitzeari utzi dio eta gerritik behera malgutasun ikaragarria du orain. Hawain dago surfariak ikusten urpetik nola olatua hartzen duten euren atzean apurtzen delarik bitsetan. Marianetako fosan dago orain eta belarriek min ematen diote presioa dela eta. Arrainek linternak dituzte burutik luzatzen zaizkien antenen puntan, musua argitzen dute eta iluna ilundu. Ternuan dago baleekin igerian. Itsaso hilean dago eguzkitan eta hondora doa, urak xurgatzen du eta gazia da dena eta egarri da eta ezin du arnasarik hartu (gatza baino ez du hartzen ahoa zabalitzen duenean) eta ez da azalera heltzen eta eguzkiaren argiak itsutu du eta eguzkia gero eta hurbilago dago eta eguzkiak klaxona jo du.

Bi hankak putzuan sartuta dago bide erdian eta inguruko kotxeak hoska ari zaizkio. Arineketan espaloira joan da. Izerdia bekoki inguruko poroetatik azaleratzen zaio gehienbat, inguruko tantak bereganatuz eta errekaak sortuz aurpegian. Lehenengo behera, gero barrurantz okertzen da begien parean, masailaren forman irristatu eta ezpainetaraino heldu da izerdi tanta. Kuriositatez, probatu egin du. Baina izerdiaren zaporea ez da ona. Malkoena bai, oso gozoa. Gazi-gozo-garratz-mingots-geza-dultzea. Baina hau, izerdi hau, ez da ezer. Ez du zaporerik. Konturatu da gustuko dituela malkoak eta ez dituela gustuko izerdi tantak.

Haizea gupidagabe ufaka ari da. Etxerantz abiatu da Argia, pauso bakoitzean arreta maximoa

jarriz (nahiko baldarra da eta ez dauka jadanik dagoena baino gehiago bustitzeko gogorik).

Hala doala, kale kantoï batean musikari bat antzeman du “Piece of my heart” joz bere klarinetean. Trajea du soinean eta EL MUNDO egunkariaren eguneko alea hanka tartean eutsita, ez diezaion alde egin. Begiak itxi-itxita dituen ez da konturatu Argia bere parean gelditu zaionik, ezta umemoko batzuk lortu dituen sos apurrak lapurtzen ari zaizkionik ere. Neskak ez du indarririk oihuka hasteko eta lapurreta burutzen utzi die.

Txanpon batzuk utzi ditu hustu berri duten txapelean eta badoa barretxoa ezpainetan, algara kasik. Baina ez eguneko ekintza ona egin duelako, Janis Joplinen ahots urratua urraturik egon balitz, helduko ez litzatekeen alturretan “take another little piece of my heart, baby” abestuz imajinatu delako baizik, eta esaldiaren interpretazio literarioa eginez fan itsu batzuk abeslariaren hilobia profanatu eta bihotz erdi usteldua hiru-lau zatitan banatuta bakoitzak bere zatia etxera eramanez ikusi dituelako. Bihotz erdi usteldua sagarren ondoan jarri dute, ondo ikusteko lekuan. Baina beren fan izaera itsu horrek ez die utzi bihotza ustelduta eta are gehiago usteltzen ari dela ikusten, nahiz eta gau eta egun berari begira egon. Azkenik konturatu direnean, usain eta usteldura haiek azaltzeko interneten sartu (hippy modernoak baitira) eta ordena gotikoren bateko orrialdean edertasuna hori dela irakurri dute. Pixkanaka (berehala ez bada) organo ustelduko mikrobio eta inurriak

bide ikusezinak eratu eta ondoko sagarretara zabaldu dira, usteldu eta jan ezinean utziz. Fenomeno hau ulertu ezinik, behin eta berriz sagar berriak erosi dituzte gure hippyek, atzera ere segidan usteltzeko. Sagar erosten hondoa jo (garesti baitago kiloa) eta kale gorrira bidali ditu etxejabeak, hots, bankuak, bihotz usteldua baino gelditzen ez zaielarik. Baina bihotzak taupadarik eman ez eta odol faltan hotzak akabatu ditu, hil aurretik beraiek egindako hilobi berezietan lurperatu, ondoren. Honen guztiaren kausa Janis Joplinek kantatu ohi zuen kanta denez, zeruko, infernuko edo dena delako auzitegian Janis Joplin deklaratzera deitu dute, bi hippy babesgaberen heriotza egotzita.

Behin-behineko pisura heltzeko bi kale baino falta ez zaizkiola, kale kantoian taberna-jatetxetxo bat ikusi du. Atsegina dirudi, baina goizean ere (bost minutu pasatu direla ematen badu ere joan dira pare bat ordu gutxienez) kafea hartzen egon da kafetegian eta ez da ganora beti kanpoan ibiltzea. Hala ere, zentzuaren kontra, hurbildu egin da kale kantoira zuhur, ondoko dendako erakusleho bat ikusteko aitzakian. Baina plater konbinatuak eskaintzen dituztela azaltzen duen arbela eta barrenetik datorren usaina erakusleihoko arropak baino interesgarriagoak dira. Barrura sartu da.

Txikia da taberna-jatetxetxoa. Izatez taberna da, plater konbinatuak, bokatak eta entsaladak eskaintzen badituzte ere. Eta badirudi arrakasta duela, jendez lepo baitago den txikirako. Barraren

pareko mahai libre bakarrean eseri eta Coca-cola-ko euskarrian sartuta dagoen plastifikaturiko orria irakurtzeari ekin dio. Bokata eta entsaladen eskaintza irakurri du lehenengo, nahiz eta seguru jakin plater konbinatua eskatuko duela. Plater konbinatuen zerrenda irakurri du, seguru jakin arren ez duela hango ezer eskatuko, berak berezia eskatuko duela, inoiz eskatutako berezirik sinpleena seguruenik.

Zerbitzaria adi zegoen eta bezeroak erabakia hartu duela igarri eta bat etorri da berarengana. Egin du eskaria. Berehala ogia, ura, edalontzia eta sardexka ekarri dizkio beste zerbitzari batek. Eskerrak eman eta pareko paretako koadroari begiratu dio. Txakur bat da, koronel edo jeneral jantzita, soldadu itxurako zerbait. Koadro motzatorik ezin zela egin pentsatu du, arrazoiz.

Zerbitzariak (hasierakoak) arrautza frijitua ekarri dio eta joan da atzera. Gaiztakeriaren bat egitera doan umearen antzera burua jaso eta alde guztietara begiratu du: ez dago zerbitzaririk berari begira, inguruko umeak olgetan daude janariarekin, nagusiak mugikorrean, agure bat azukre poltsa zabaldu nahian dago guztiz kontzentratuta eta James Bonden itxurako espioirik inguruan ez dagoela dirudi. Bera bakarrik dago jendez betetako leku horretan, beraz. Ogi zati bat hartu du eta arrautzaren gorringoan busti, igurtzi jaso, nahi beste bustita ez dagoela iritzita, berriro igurtzi eta mugituz erabili du ahoan irribarre maltzurra duela, pelikula beldurgarrietako pailazo zoroaren

irribarre horixe bera. Ogia nahikoa bustita dagoe-
la iruditu zaionean eskua jaso eta barrura sartu du,
plazerez. Frijitu berri zegoen arrautzaren berotasu-
nak barneko huts umela lurrundu eta sudurreko
gorria difuminatu du aurpegi osora une batez.

Ondoren ordaindu eta etxera joan da.